



La Fundación
SAN PRUDENCIO

FAMILIA SARIAK 2020

XVIII. EDIZIORAKO OINARRIAK

“Familia eta teknologia berrien erabilera Koronabirusaren ondoriozko konfinamenduan zehar”

2020KO FAMILIA SARIEN OINARRIAK

Xedea eta irismena	3
Edukia.....	3
Eskatzaileak.....	4
Aurkezteko epea eta aurkeztu behar diren dokumentuak	4 eta 5
Epaimahaia.....	5 eta 6
Sariak	6 eta 7
Eraketa eta zenbatekoa	6
Sari banaketa.....	7
Jabetza eskubideak eta konfidentzialtasuna	7

XEDEA ETA IRISMENA

Aurten ere, La Fundaciónek Familia Sarien deialdia egiten du. Deialdiaren helburua da aitortza bat egitea Arabako familien (edozein bizikidetza-unitate) jardun aipagarrienei, bai eta horiek ongizateari, garapen sozialari, hezkuntzari eta kulturari egiten dioten ekarpenari ere.

Dokumentu honetan Sariaren oinarriak eta hautagaitzak aurkezteko eman behar diren urratsak jasotzen dira.

EDUKIA

La Fundación San Prudencio irabazi asmorik gabeko erakunde bat da, Enpresaren Gizarte Erantzukizuna garatzeko eta Arabako gizartearen ongizaterako lan egiten duena; hori dela eta, haren jarduera ugariren helburua pertsonen laguntzea da, haien familia-esparruan; izan ere, era guztietako familiak bizitzan aurrera eramaten ditugun jardunen oinarritzko lotura direnaren uste osoa dugu.

Hori dela eta, La Fundaciónek, familien jardunbide egokien Sariarekin, zera egin nahi du:

- Familiek hainbat alderdi hobetzeko dituzten dedikazioa eta ahalegina *aitortzea*, besteak beste, familiaren baitako komunikazioa, bizikidetza, giza-harremanak eta harreman sozialak hobetzekoak.
- Familiak *sentsibilizatzea*, haien baitan jardunbide egokiak mantentzeko eta garatzeko behararen inguruan, horrela, gizartearen hobekuntzari ekarpen bat egingo baitiote.
- Jardunik onenak *saritzea*, familiak horiei eustera animatzeko, eta gure inguruan eredu eta adibide gisa baliagarri izan daitezen.

Oinarri hauek arautuko dute familiaren baitako jardunbide egokien Sarien deialdia, zeinak, koronabirusak markatuta, aurten helburu hauek dituen:

- ✓ Familiek teknologia berrien erabileran dituzten **jardunbide egokiak** ezagutzea (sare sozialak, WhatsApp, bideo deiak, etab.):
 - Bereziki, nola erabili diren **Koronabirusaren ondoriozko konfinamenduan** zehar, senideekin eta lagunekin komunikatzeko, harremanak izateko, elkar ikusteko, ondo pasatzeko eta abar.
 - Eta, baita ere, nola erabiltzen ziren **berrogeialdia baino lehen**.

- ✓ Familiako kideak inplikatur dauden eta teknologia berrien erabilera egokiaren aldeko ekintzak sustatzea.
- ✓ Gainerako familientzat eredu garriak izan daitezkeen jarrera eta ekintzak identifikatzea.
- ✓ Esparru horretan jardunbide egokiak egiten ari diren familia-unitateak saritzea.

Familiarekiko eta lagunerekiko harremanak aldatzen ari dira jendea gutxiago ari baita aurrez aurre komunikatzen, teknologia berrien ondorioz.

Teknologia berriek familia eremuan duten **arazo** nagusia giza harremanen kalitatea desbirtualizatzeko arriskua da, kontaktu fisiko erreala pantaila baten bidez erlazionatzeak dakarren harreman birtualarekin ordezkatzeko baita.

Bestalde, teknologia berriek (sare sozialek, WhatsAppak, bideo deiek...) badituzte **alde positiboak**: informazioa azkar eskuratzea, harremanak berreskuratzeko erraztasuna, era guztietako edukietarako sarbidea, norbera sustatzeko ahalmena, entretenimendua eta salmentak online egiteko aukera, besteak beste.

Garrantzitsua da beti gogoan izatea, gure bizitzako alderdi guztietan, kontaktu birtualak ezin duela eta ez duela ordezkatu behar besteekin dugun zuzeneko kontaktua.

Koronabirusaren ondoriozko konfinamenduan zehar, sare sozialen eta teknologia berrien erabilera esponentzialki igo da: "Instagrameko eta Facebook Liveko ikustaldiak bikoiztu egin ziren astebetean, mezu kopurua ere ehuneko 50 baino gehiago hazi zen, eta talde deietan (hiru parte hartzaile edo gehiago dituztenak) emandako denbora % 1.000 baino gehiago hazi zen".

Beraz, garrantzitsua iruditzen zaigu ekimen hau sustatzea, familiaren baitan jorrazteko eta familian elkarrekin hausnartzeko teknologia berrien eta sare sozialen erabileraren inguruan eta berrogeialdi honetan egiten dugun erabileraren inguruan. Sariaren helburua parte hartzaileek horren inguruan hausnartzea eta hausnarketa hori familia guztietara hedatzea da.

ESKATZAILEAK

Saria Araban bizi diren pertsona guztiei irekita dago, haien familia-egoera dena dela ere, eta La Fundacióneko titular guztiei (haien bizilekua Araban ez egon arren).

La Fundaciónek (aurrerantzean, LaF) beretzat gordetzen du eskubidea, zalantzarik izanez gero, hautagaiek eskatzen diren baldintzak betetzen ote dituzten iriztekoa eta erabakitzeakoa.

AURKEZTEKO EPEA ETA AURKEZTU BEHAR DIREN DOKUMENTUAK

Aurkezteko epea. XVIII. Edizio honetan, dokumentuak aurkezteko hainbat modu egongo dira: gure webgunean: www.lafundacion.com, posta elektronikoz: info@lafundacion.com, gure bulegoan: Dato kalea 43, 01005 Gasteiz edo sare sozialetako gure konturen baten bitartez, #Coronavirussyfamilias erabiliz.

Hautagaitzak 2020ko maiatzaren 5etik ekainaren 5era arte aurkez daitezke.

Epez kanpo aurkezten den edozein eskaera ez da aintzat hartuko.

Aurkeztu behar diren dokumentuak:

1. Parte hartzeko eskaera-orria, beteta.
2. Jardunbide egokiak, idatzita, honako alderdi hauek azalduz:
 - ✓ Teknologia berrien erabilera (sare sozialak, WhatsApp, bideo deiak, etab.):
 - Bereziki, nola erabili diren **Koronabirusaren ondoriozko konfinamenduan** zehar, senideekin eta lagunekin komunikatzeko, harremanak izateko, elkar ikusteko, ondo pasatzeko eta abar.
 - Eta, baita ere, nola erabiltzen ziren **berrogeialdia baino lehen**.
 - ✓ Familiako kideen portaera zehatzak teknologia berrien eta sare sozialen erabilerari dagokionez.
 - ✓ Jardunbide egoki horiek gizartera zabaltzeko modu zehatzak.

Gutxieneko euskarria orrialde bat da.

Familian teknologia berriak (sare sozialak, WhatsApp, bideo deiak...) erabiltzen direla agertzen duten marrazkiak/argazkiak/bideoak aurkeztea baloratuko da.

EPAIMAHAIA

Epaimahaiak kide hauek izango ditu:

- Presidentetza: LaFeko Presidentea
- Idazkaria: LaFeko Gerentea
- Kideak
 - Eusko Jaurlaritza
 - Arabako Foru Aldundia

- Gasteizko Udala
- Gurasoen Elkarteak
- Gaiarekin lotutako berariazko erakundeak
- La Fundación San Prudencio

Epaimahaiaren egitekoak dira:

- Aurkeztutako hautagaitzak aukeratzea.
- Sariak erabakitzea.

Balorazio irizpideak epaimahaikide bakoitzaren iritzietan oinarrituko dira.

Hautaketa gehiengo soilez egiten da eta Presidenteak kalitateko botoa izango du.

Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

SARIAK

ERAKETA ETA ZENBATEKOA

Familiaren baitako Jardunbide Egokien Sariaren deialdia urtero egiten da eta saria publikotasun-, lehia- eta objektibotasun-printzipioak betez ematen da.

Aurten 500 € garbiko hiru sari egongo dira, eta sariari dagozkion zerga xedapen guztiak aplikatuko zaizkio, une bakoitzean aplikatu beharreko legeriaren arabera.

FUNDACION LABORAL SAN PRUDENCIOk sariari dagokion atxikipenaren edo konturako sarreraren kostua bere gain hartzeko konpromisoa hartzen du.

Aurreko edizioetan sarituak izan diren familiek ezingo dute saria jaso, gutxienez, saria eman eta hurrengo bi urteetan.

Familia bakoitzak hautagaitza bakarra aurkeztu ahal izango du.

Sariak emango dira, baldin eta epaimahaiak baderitzo, oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzeaz gainera, saria merezi duten hautagaitzak daudela. Hala ez balitz, ez da saririk emango.

La Fundación San Prudencio saria jakinarazi eta hurrengo hilabetean ordainduko du, LaFen ohiko ordainketa-modu gisa ezarritako prozedura jarraituz.

LaFek beretzat gordetzen du sari kopurua zabaltzeko edota aldatzeko eskubidea, eta baita horien zenbatekoa aldatzekoa ere, baldin eta aitortza merezi duten eta interes berezikoak diren hautagaitzak baldin badaude.

Sariak ex aequo eman ahal izango dira.

Aurkezten diren jardunbide egokiak LaFen webgunean argitaratuko dira eta beste familientzako gida gisa balioko dute.

SARI BANAKETA

Sari banaketa, LaFeko Presidentea buru duela, LaFek antolatutako ekitaldi batean egingo da, zeina Herri Administrazioetako kideek egingo duten.

JABETZA ESKUBIDEAK ETA KONFIDENTZIALTASUNA

Aurkezten diren lan guztiak konfidentziasunez tratatuko dira eta, idatziz eskatzen duten parte-hartzaileei, itzuli egingo zaizkie, saria banatu eta hurrengo hilabetean zehar.

Nolanahi ere, LaFek beretzat gordetzen du eskubidea, jardunbide egokiak eta horien irudiak sare sozialetan, webgunean, artikuluetan, argitalpenetan eta prentsan argitaratzekoa, ikusgai jartzekoa edota jendarteratzekoa, eta baita irabazleen izenekin eta hautagaitzen ezaugarri orokorrekin gauza bera egitekoa ere, parte-hartzaileek hautagaitza aurkezteko unean sinatzen duten dokumentuan jasota geratzen den bezala.

LaFek saritutako lanen kopia bat gordeko du eta informazioaren konfidentziasuna bermatuko du.